

1. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan, hainbat gauza hartu ditugu kontuan; alde batetik, banketxeari mailegu bat eskatu behar izan diogu proiektua martxan jartzeko. Hasieran uste genuen ez zela beharrezkoa izango mailegu bat eskatzea, baina azkenean eskatu egin genuen, kostuak guk pentsatzen genuena baino altuagoak izan direlako.

Bestalde, gure ideia patentatu dugu, beste enpresa batek ere ez dezan ideiaz baliatu eta antzeko zerbait sortu, produktu hau oso eskusiboa baita. Gainera, gure bulegoan egongo diren tresna elektronikoak duela gutxi erosi ditugu eta egoera onean aurkituko dira.

Amaitzeko, proiektu hau sortu dugun lau pertsona, soilik izango gara lan egingo dugun langileak. Baina kontuan izan behar dugu, halaber, "Correos" kontratatu dugula gure mugikorrek penintsula osotik banatzeko, eta "Litio Solar", berriz, plakak ekoizteko. Horregatik, bi enpresa horiek gurearen zati gisa sar ditzakegu, irabazien ehuneko bat eramango baitute.

Talde kide bakoitzak, hainbat jarduera izango ditu bere menpean

Nerea	Web-orria eguneratzeaz baita bezeroarentzako zerbitzuaz ere arduratuko da
Isasi	Bidalketa-enpresarekin hitz egiteaz, guztia behar bezala irits dadin, eta dendan bezeroei lagunduz zein aholkatuz arduratuko da
Uxue	Lan egiten dugun enpresekin hitz egingo du, gure produkturako behar ditugun elementu guztiak guri helarazteko, eta gure bi produktuak gure fabrikara bidaltzen ditugun funtzionarioarekin hitz egingo du.
Joane	Enpresaren marketing-az arduratuko da, publizitate-kanpaina ona izateaz, eta gure dendan ere lan egingo du.